

Literatura

Koaderno gorria
Arantxa Urretabizkaia

Erein, 1998



Libre baizik

ZERGATIK PANPOX eleberriari uztarturik darrai Arantxa Urretabizkaia idazle irudiak. Horixe bera defendatzen du haren obra xeheki aztertu duen Iratxe Retolazak. Uztarketak badu oinarririk: euskal eleberrigintzaren bilakaeran mugarri, emakume batek idatzitako euskarazko lehen eleberria da, gainera modernoa. Eta *Zergatik panpox* eleberriari uztarturik darrai, nahiz hasi zen poesia publikatzen, *San Pedro bezperaren ondokoak*, adibidez, *Euskal Literatura 72* izeneko liburu kolektiboaren barruan –Koldo Izagirrek: “liburu hartatik denboraren joanak higitu gabe iraun duten obra bakanetako bat”–, XX. mendeko poesia kaiera bat merezi izateraino. *Zergatik panpox* eleberriari uztarturik darrai halaber, nahiz badituen nabarmentzeko moduko beste eleberri batzuk, ez hainbeste *Saturno* –maitasun istorio konbentzional bat, grazia handirik gabea–, gehiago *3 Mariak* –zahartzaroari egindako erretratu ez topiko bat–, baina, batez ere, *Koaderno gorria*.

Bi planotan dago narrazioa antolatuta: batetik, Venezuelara lagun baten seme-alabak aurkitzera doan emakume baten gorabeherak azaltzen dira, nola lagunak idatzitako koaderno gorri bat eman behar dien haur horiei; eta, bestetik, koaderno gorri horretan idatzita dauden pasarteak sartzen dira. Eta oso da interesgarria koaderno irakurri bitartean lagunaren irudiak emakumearengan jasaten duen

bilakaera, argi baitu ez dela edonor, emakume miretsia dela, Euskal Herriaren alde egiten duela borroka, edo askatasunaren aldeko gudaria dela. Azkeneko, ordea, miresmena zena bihurtzen da zalantza. Baina pisu gehien hartzen du, duela zazpi urte senarrak eramandako umeak topatzeko inkestak, hiru astean zehar emakume gazteak Caracas eta inguruetan aurkitzen duen jendearekin dituen harremanak, harreman berri horiek sortzen dizkioten hausnarrak. Labur, asko gustatu zait eleberriak erakusten duen emakumearen ahalduntzea, tradizionalki euskal literaturak eman duen emakume-emazte are ama irudiarekin hausten duena, ekintzaile dena, gizona parez pare begiratzeko gauza, familiaren instituzioa kritikoki begiratzen duena; “ez da bakarrik sentitzen, libre baizik”. Hala, aurreko eleberriek ez zuten konplexutasuna du egitura aldetik honek, trama aldetik, orobat planteatzen diren ideien aldetik. Ibon Sarasola: “nobela honetan daude Arantxaren orrialderik onenak”. Uste dut Ibonek arrazoi zuela. *Zergatik panpox* eleberriari uztarturik darrai Arantxa Urretabizkaia idazle irudiak. Ondo egingo genuke, ordea, Arantxa Urretabizkaia idazle irudiari beste liburu batzuk uztartzen hastea. Luze gabe, *Koaderno gorria*. ■

Aritz Galarraga



Liburu azoka

Eibarren, urriaren 16tik 25era Unzaga plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!